



tolosaldeko  
eta leizaldeko

Harpidedunei banatua ▶ Asteartea ▶ 2005-02-08 ▶ III. urtea ▶ 528. zenbakia

TOLOSA ▶

## Kalejirako musika festa

Txarangarekin joaten  
da jendea zezenetara ▶ 3



# Aisialdi taldeen kolorea, umorea, musika eta dantza

**GAIK** ▶ Bere gaiak: euskal jaiak,  
masai tribua, 'La sirenita', Harry  
Potter, pailazoak eta John Travolta

**KOPURUA** ▶ Sei taldeetan  
801 haur eta gazte atera ziren,  
Astelenitako protagonistak ▶ 4-5



Ibarrako Txiribitu aisialdi taldeko pailazoek jantzi koloretsuengatik nabarmendu ziren atzo eguerdiko konpartsa desfilean. IÑIGO TERRADILLOS

**ROSA ETXEBERRIA** ▶  
INAUTERIZALEA

«Nik  
Inauteriak  
galdu? Ezta  
erotuta ere»

Txarangaren atzetik  
saltoka ibiltzea  
gustatzen zaio ▶ 2

**AMEZKETA** ▶



IMANOL GARCIA

30 urte  
bete dituzte  
talai dantza  
egiten

Bedaion eta herriko  
baserrietan ibili ziren  
atzo dantzariak ▶ 7

# AITZOL

UDAL EUSKALTEGIA

INAUTERIETAN TXANTXO ETA  
EUSKALTEGIAN TXINTXO

TOLOSAKO UDALA  
EUSKARA BATZORDEA



## Duela hamarkada batzuetako hiru inauterizale ezagun

**ARGAZKI ZAHARRAK** ▶ Tolosan duela hamarkada batzuk —eta hamarkada dezentetan zehar— ezagunak ziren hiru inauterizale dakartzagu sail honetara. Ezkerrean Javier Bello Portu musikari, orkestra zuzendari eta konposatzaile handia Alboradan. Aurreko ostiralean jaso zuten bere seme-alabek bere

omenez emandako EHU-Donostiako Orfeoia saria. Datorren igandean izango da urtebete hil zela. Erdian Juanito Lope pintore, eskulturgile eta karroza eta konpartsa askoren egilea ageri da Alboradan. Azkenik, Jose Luis ageri da, *Iribarrearen biajantea* bezala moztortuta. 'FIESTAS DE PRIMAVERA 1961'

**ROSA ETXEBERRIA** ▶ INAUTERIZALEA

## «Inauterietako onena txarangaren atzetik saltoka aritzea da»

Noelia Lataburu. Inauterizale amorratuztat jotzen du bere burua Rosa Etxeberriak. Urtero karrozetan parte hartzen du eta gogoz aritzen da lanean aurrez egun hauek ahaztezinak izan daitezzen.

**Zu tolosarra zara. Tolosarrak inauterizale behar al du jaiotzez?**

Nire kasuan, behinik behin, hala da. Izango dira, akaso, Inauteriak gogoko ez dituztenak, baina nire inguruan denak gara oso zaleak. Dena den, ezagutzen dut ere eskiatzera joatea nahiago duenik. Nik, Inauteriak galdutako? Eria erotuta egongo banintz ere.

**Nola definituko zenizkioke Inauteriak kanpotik lehen aldiz datorren bati?**

Hitz batean esateko, alaitasuna azpimarratuko nuke. Batez ere kezka egun batzuk alde batera utzi eta ondo pasatzeko garaia da, koadrilakoekin eta gertukoekin. Ez badituzu inoiz bizi zaila da adieraztea.

**Une zehatz batzuk aukeratu**

**beharko bazenitu, zeintzuk dituzu gustukoena festa haue-tan?**

Tolosarra izaki, nahiago dut herrikoentzat bereziki ditugun egunak, hau da, kanpotar gutxi dauden egunak. Ostegun Gizona, Zaldunita, Diana batez ere, eta azken eguna. Baina denetan maiteena niretzat txarangak dira, beraien atzetik saltoka aritzeko. Gauez gutxiago ateratzen naiz ni. Eguneko juergak ditut atsegin.

**Nola prestatzen dituzu moztorroak eta bestelakoak?**

Talde batean ateratzen naiz. Laz zisnez moztortu ginen, balleta eginez saria eta guzti irabazi genuen. Aurten abenduan hasi ginen lehen bilerekin. Bertan ideiak bota eta denetan artean erabakitzen dugu. Hainbeste bururen artean ez da horren zaila zedozer orijinala lortzea. Gainera prestatetan ere oso ondo pasatzen dugu.

**Aurreko urtean koreografia ere zure esku egon zen.**



Rosa Etxeberria —ezkerrekoa, umea besoetan duela— koadrilan. HITZA

### TRAGO BATEAN ▶

**Festa bat?** Tolosako Inauteriak, dudarik gabe. Niretzat oso bereziak dira.

**Mozorro bat?** Egia esan ez nuke jakingo aukeratzen. Urte asko dira jadanik moztorro berriekin. Aurreko urtean balletarena oso ona izan zen.

**Hausterre egunean poza ala tristura?** Lasaitasuna esango nuke, astebeteko jai eroen ondoren.

Bai, oso dibertigarria suertatu zen. Ez nuen dantzak asmatzen ideiarik, baina koreografa bati galdetu nion eta laguntza horrekin erraza izan zen. Etxean eginiko dantza izan zen.

**Eguneko lehen ordutik azkenera aprobetxatzen dituzu egun hauek, beraz.**

Adinan aurrera noan heinean, Inauterietarako nire gogoak ere gora egin du. Baina orain nahiago izaten dut eguneko parranda erabat aprobetxatzea eta gauean hurrengo egunerako deskantsatu. ◀

### DATUA ▶

**801** haur eta gaztetxo atera ziren atzo Atsedena, Kazkabarra, Kirikiño, San Bernardo, Ttentek eta Txiribitu aisialdi taldeetako konpartsetan. Ez bat gehiago, ez bat gutxiago. Banan bana kontatu baikenituen. Aurrena bat ikusi genuen, eta gero zortirehun bat atzetik.

### LASAITASUNA ▶

Egun hauetan goizero udal-txean jaietako jarraipen batzordea biltzen da udaletxean: Festa Batzordea, txosnak, Udaltzangoa, DYA eta Babes Zibileko ordezkariak alkatea eta bi zinegotzirekin. Bileran horren helburua jaietan izandako gertaerak —istri-puak, taberna eta txosnen ordutegiak, txikizkoak, garbiketa...— aztertzen dituzte zuzendu beharrekoak zuzentzeko. Orain arteko (lasaitasuna eta normaltasuna) azpimarratu dute bilera horietan. Aurtengo jaietan lortzen ari den «giro ona» ere aipatu dute. «Zezek harri-patutako zauritu batzuk, txikizkoen bat eta ohi baino lapurreta gutxiago izan dira orain arte. Kale garbiketa *etilikoa* ere ondo ari dira egiten», azaldu du Jokin Bildarratz alkateak. Normalean kanpotar asko eta *gertaera* gehiago izaten den Astelenita gaua baino lehenago egingako adierazpenak dira. Horren «kezka» era bazuten jarraipen batzordeko kideek. Ea dena ondo doan!

### KANTAK ▶

'GALTZAUNDI'  
Ta Galtzaundi, ta Galtzaundi  
apellidua det Goñi.

Neri deritzait Galtzaundi  
apellidua det Goñi,  
Aldasoro izen goitiya  
deitzen dirate neroni;  
iltzerikan ez nuben  
lenago pensatzen,  
bañan oraingotikan  
ez naiz eskapatzen,  
testamentu egitera  
nua ni lenbailen,  
nere parientiak  
lasatu ditezten.

Ta Galtzaundi, ta Galtzaundi  
apellidua det Goñi.

RAMOS AZKARTE

**Ezenarro**  
Leiho isolaigarriak

**Inauteriak ondo pasa!**

Leiho isolagarriak • PVC •  
Hautura aluminioa •  
Egur arortzintza

San Frantzisko, 26 - behea  
20400 TOLOSA - Tel.: 943 11 85 36  
Faxa. 943 11 84 53

TARTALONGI PASAU  
TA  
GUTXI GASTAU  
PLAZA ZARRA 10 TOLOSA

Nafarroa etorb. 11 • Tel.: 943 65 12 64

**OSKI**

Emeterio Arrese, 5 • Tel.: 943 65 56 21

OINETAKOAK • JANTZIAK TOLOSA • GAZTEA

www.saldias-miguel.com  
saldias@saldias-miguel.com

**Saldias Miguel**  
Nº D.G.S.J.1759

**ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**

**KUPELA**

**Etorri  
INAUTERIAK  
gurekin  
ospatzera!**

**Pintxoak  
ogitartekoak  
eta giro  
euskalduna**

Plaza berria, z/g • TOLOSA  
Tel.: 943 67 20 70



KALEJIRA ▶

# Txarangekin zezenetara

'Praxkuarena' eta 'Irureta' doinuekin, batzuetan aurrerantz eta bestetan atzerantz, sailka jarri eta kalejiran joan ohi dira arratsaldeko zezen festara



Mozorroen eta etxeetako koloreak. Dena da kolore! JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Arratsaldeko laurak eta jada zezenetara joateko prestatzen da jendea. Egunero-egunero, ordu horretan hiru txaranga atera ohi dira Plaza Zarretik zezen plazarantz, bata bestearen atzetik, inauterizaleak atzetik saltoka eta brinkoka dutela, kaleak doinu ez ezik, kolorez ere betez.

Atzokoan goizeko sokamuturra ez nahikoa eta, arratsaldean, bazkalondoan ere, zezenplazara joan zen Hrtza, udal-txeko arkupetatik hasita, otorduan jandako gehiegizkoa erretzeko aitzakiarekin, akaso, baina ez zezenen aurrera, txarangen atzera baizik. Tolosano, Poca Tripa eeta Arco Iris txaranga bata bestearen atzetik jarri eta tartean txarangezale, inauterizale eta festazaleak zi-

tuztela, kalejira egin zuten. Praxkuarena eta Irureta doinuen musikarekin, bi hauek omen dira eta joanerakoan jo «behar» direnak, 7. eta 14. pieza modura ere ezagun direnak bestalde, musikarien artean, behinik behin. Itzuleran, orduan bai, edozein doinu jo omen daiteke, diotenez. Hurrengo batean egiaztatuko dugu.

Adin guztietako inauterizaleak zihoazen dantzan saltoka, banaka, sailka besotik edo bizkarretik hartuta, batzuetan aurrerantz, bestetan atzerantz, doinuak agintzen zuen eran. Askok, goizean kalejiran ibili ziren aisialdi taldeetako konpartseroak ziren, besteak koadrila osoak, lagun taldeak... Guztiek ere, kolore biziz jantzi zituzten kaleak eta ondoren baita zezen-plaza bera ere.



Kalea bete dantzari eta musikari ikus daiteke ordu guztietan ia. J. A.



Besotik hartu ondokoak eta paraba paraba, para... segi!! J. A.



Batzuk kalejiran doazen bitartean, besteak pasaerari begira. J. A.

## INKESTA ▶ INAUTERI DOINUETAN ZEIN DUZU GUSTUKOEN?

LIERNI DOMINGUEZ  
TOLOSA



«Baratzeko pikuk eta Iriyarena, martxosoak direlako oso gogoko zaizkit».

MAITE ASENSIO  
TOLOSA



«Diana dut gustuko. Letra dakidan bakarra da gainera. Denak dira politak, baina».

JUANMA DIAZ  
TOLOSA



«Galtzaundi, zallantzarik gabe. Kantu hori da Inauterietakoa den doinua».

ANTONIO TAMAYO  
TOLOSA



«Diana, etortzen zaidan lehendabizikoa da, eguna hastean entzuten dudalako edo».

JOSU KARRERA  
TOLOSA



«Gure Txokoa elkarteko pieza oso polita da, oso Inauterietakoa ez bada ere».

IÑAKI PAKEA  
IBARRA



«Pintxana, giroa sortzen duelako eta sagardotegietan hauxe kantatzen dugulako».

JESUS PIKABEA  
PASAI DONIBANE



«Gure Kaiolako Habanera, jotzeko oso polita delako».

HERNIALDE  
JATETXEA

helix garido  
gortxoak lakurain

Ondo pasa  
Inauteriak!

martin jose iraoia, 10 • tolosa  
tel.: 943 67 56 54

Villanueva, S.L.  
BANAKETAK

KELER

INAUTERI ON!

Okabio Industrialdea, 27  
20401 BELAUNTZA  
Tel: 943 67 11 27

66

Bokatak, Pintxoak eta  
Plater Konbinatuak, ugari.

-- 7etan irekita --

jai zoriontsuak pasa!

M.J. Iraola, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 19 37

"Xirimiri" Txokolategia

Gora inauteriak!

Errementari kalea, 40  
20400 Tolosa

Telef. 943 67 52 23

MENDI-ALDE  
Jatetxea

Eguneroko menuak eta karta  
Bataioak, Jaunartzeak,...

San Esteban auzoa, 39 • © 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA



ASIALDI TALDEAK ▶



**Kazkabarra.** Marijakiak, Zeledonek, Galtzaundik, San Ferminek, Txerrenek eta danborrariak ere ez zuten hutsik egin Inauterietan. L. ERASOZ

**IRATXE ETXEBESTE  
LEIRE MONTES  
IRIGO TERRADILLOS**

Estreinakoz elkarri ziren atzo, Tolosan, Euskal Herriko jai nagusietako pertsonaia. Marijakiak, Zeledonek, sasekasta-nietako danborrariak, Iparraldeko Txerrenek eta San Ferminek, Galtzaundik, Galtzaundia, beren festefako domusak eta dantzak eskaini zituzten Pablo Gorosabelen. Kazkabarra aisialdi taldeko haurrek gonbidatu zituzten Tolosako Inauterietara.

Urrutiagotik ere etorri ziren, Afrikatik, hain zuzen ere. Masai tribuko ez mozorroturik, lantzak hartu eta hauen dantzak eta errimo hitzak irudikatatu zituzten San Bernardo eskaut taldekoek. Urpetik lehorrera iritsi ziren *La Sirenia* filmeko pertsonaia. Karamarroak, sirenak, olagarro maltzurra, kapitainak, Neptuno... Inor ez zen falta festan. Harry Potter eta bere lagunek ere Tolosako Inauterietan berri entzun dute errebatu, zuzen hitzak egin baituzten atzo agerardia Rondilla kalean. Kapa soinean, eta erratza eta makiloz eskuian, magiaz bete zituzten herriko tokiak.

Noski, pailazoek ezin hutsik egin Inauterietan. Ibarako Txirribitu aisialdi taldekoek, mila koloreko jantziak zituztela, koreografia alaiak eskaini zitien bazterretatik ikusizuna jarraitzen zutenak. Irriak zaharitu zituzten, pailazoen lana ederki asko bete. Omenaldirik ere ez zen falta izan atzo. *Fiebre del sábado noche*, *Grease* eta *Pulp Fiction* filmetako pertsonaien antzera jantzi, eta John Travolta izan zuten gozogan Kirikiñokoek.

Pesta giro polita jarri zuten, bai, baina gariak aldatuz doazela ikusi ahal izan genuen atzo. Izan ere, lehen aisialdi talde bakiltzeko kide guztek elkarrekin bazkaltzen zuten, dirudienek, bakiltza bere aldetik joaten da orain bazkaltzara, eta ez dira zezanak hasi arteko giro horretan batera egoten. Nahiago guren lehengoa.



**Tentek.** *La Sirenia* filmari oinarrituta, urpeko biotz modua antzatu zuten: karamarroak, sirenak, olagarro maltzurra, kapitainak, Neptuno... Inor ez zen falta festan. L. ERASOZ



**Txirribitu.** Ibarako taldearen pailazo koadrila koloretsuak ikusizuna alaiak eta polita eskaini zuten Pablo Gorosabel kalean. L. ERASOZ



**Atsedena.** Harry Potter magoaren abenturien girotu zituzten kaleak Atsedena taldeko neska-mutiek. L. ERASOZ



**San Bernardo.** Afrikako masai tribuak mozorrotuta, eta lantzak eskuian hartuta, errimo biziko koreografia dantztatu zuten atzo goizean San Bernardo eskaut taldekoek. L. ERASOZ

# Dantza Astelenitari

Euskal jaietako pertsonaia, Afrikako masai tribua, 'La Sirenia' filmeko lagunak, Harry Potter, pailazoak eta John Travoltaren omenez aritu zirenak: aisialdi taldeak



**Kirikiño.** John Travolta omendria egin zioten, eta *Fiebre del sábado noche*, *Grease* eta *Pulp Fiction* filmak irudikatatu zituzten. L. ERASOZ

TALDEAK ▶

**AGUSTIN-ENEAK**  
JATETXEA

Sei aisialdi taldek eskaini zituzten atzo beren dantza ikusizuna San Frantziskon. Gutira, 801 haur, gaste eta heldu aritu ziren.

Kirikiño, 270 lagun.  
Kazkabarra, 203.  
Atsedena, 108.  
Tentek, 90.  
San Bernardo, 90.  
Txirribitu, 40.

**Gora Inauteriak!**

**Euskal Herria plaza, 6 • TOLOSA • Tel.: 943 65 10 59**

**TOLARGI**  
Tolosa argia, zuzena.  
La luz de Tolosa. Tu luz

**INAUTERIAK ONDO PASA!**  
Arostejeta, 18 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 53 20 • Fax: 943 67 55 11

**in** arkitetura & ingeniaria, eskaintza & dezentziazko arkitekto & planerak, zuzen & liburuak, abstrakzio & sakabak

Nafarroa etorbidea, 12  
30400 Tolosa  
Tel.: 943 65 36 80

**Ondo pasa Inauterietan**

www.ondo-pasa.com

**OINETAKOAK**  
Ondo pasa Inauterietan!  
Tel.: 943 65 04 63  
Nafarroa etorbidea, 14  
TOLOSA

**ALDAMA TAPIA S.L.**  
ARTEKARITZA • GESTORIA • ASEGURAK

Kaldero, 22-bisita • Andoain • Tel.: 943 59 46 76 / 943 30 01 67 / Fax: 943 30 04 17  
gizarte@aldamatapia.com

Foruen etorb. 7 • Tolosa • Tel.: 943 65 03 77 / 943 65 03 92 / Fax: 943 65 52 06  
gizarte@aldamatapia.com

**'ZURE UMEEN DENDA'**  
eskasak • eguzkitakoak • segurtasun abuzkiak  
zakuak • mailndireak • ohe estalkiak

**HAURDUNIZTARAKO ARROPA-HAUR MODA 0-2 URTE**  
ONDO PASA INAUTERIAK!  
San Frantzisko, 39 • TOLOSA • Tel. Fax: 943 65 22 35

**TOLOSAGAJA**  
Tolosako energia. Zuzen.  
Energía de Tolosa. Tu energía

Arostejeta, 18 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 53 20 • Fax: 943 67 55 11

**ABURUZA** Fraktoizak, S.A.

Rabi Berria, 48 bisita • Tel.: 943 68 02 07 • Fax: 943 68 02 02 • 39100 BILBAO



## SOKAMUTURRA ▶



**Solana kalean.** Atzoko sokamuturra —besteetan bezala— ikusleak korrikalariak baino gehiago ziren. Solana kaletik pasatzerakoan, Zerkausia harmaila gisa bihurtu zen bertan bildu ziren ikusle ugariarentzat. Gaur 10:30ean izango da sokamuturreko zezenaren aurrean ibiltzeko aukera. J. SAIZAR



**Plaza Zaharra.** Zezenetara arrimatzen ziren ausartak ez ziren faltatu atzo. J. SAIZAR



**Itzaina.** Zezenak zaintzen ibiltzen den itzainak ere argi ibili behar izan zuen. J. SAIZAR



**Aspaldiko ohitura.** Garai batean Txinparta elkarteak antolatzen zuen sokamuturra. 1934ean berreskuratu zuen 43 urtez debekatuta egon ondoren. Elkartetik, Erremetari kaletik ateratzen zuten zezena. 1980 arte antolatuta zuten. Gaur egun Festa Batzordea arduratzen da eta Solana kalean eta plaza Zaharrean egiten dute. J. SAIZAR

## AURPEGI EZAGUNA ▶ XABIER EUZKITZE (KAZETARIA)

# Herritarren ilusioa azpimarratzekoa

Lanak behartuta etorri ohi da urtero Xabier Euzkitze Tolosako Inauterietara; gustagarriak eta bereziak direla dio

IÑIGO TERRADILLOS

Azpeitian ere Inauteriak ospatzen badituzte ere Tolosakoetara etorria dela azaldu dio Xabier Euzkitzek HITZARI. Hala ere, lanak behartuta etorri da

gehienetan telebistako aurkezlea Inauterietara; baina pilota partiduak amaitu eta gero beti izan da tarteren bat kalera atera eta zer nolako giroa dagoen ikusteko.

Lana alde batera utzita, bi

edo hiru aldiz etorri da propio Tolosako Inauterietara. Eta gutxitan izan bada ere, asko gustatu zaizkio eta «gustagarri egiten duena herritarrek egun hauetan duten ilusioa», dela dio Euzkitzek. «Denbora luzez aritzen dira moztarokak eta karrozak prestatzen, lan handia egiten du jendeak eta hori nabaritzen da egun handietan ikusten diren emaitzekin».

Azpeitiako Inauteriak desberdinak direla dio, haiek Azpeitierrentzat direlako eta To-



Xabier Euzkitze telebista aurkezlea. UROLA-KOSTAKO HITZA

losakoak baino xumegoak dira bere ustez. «Gainera Tolosakoak dira izena eta ospea dutenak; Estatu Batuetan euskaldun jatorria duen lagun bizi da eta aurtun etortzeko zen Inauterietara ezagutu egin nahi zituelako, baina azkenean ez du etortzerik izan», azaltzen du.

Azpeitian moztarok denean, pilotariz edo futbol amerikararen jantziekin atera da, eta telebistako makilatzaileek lagundu izan diotela azaldu du; «Moztortzeko kontuarena arpegia estaltzeko modu bat ere bada», gehitzen du azpeitiarrak.

Aurtun ere etorri da Tolosako Inauterietara, baina kazetari lanak ekarri du berriro ere: atzo Beotibar pilotalekuan Titi III.a-Barriolak Xala- Lasak jokatu zuten binakako pilota txapelketako partidua ETBrako erretransmititzaegatik hain zuzen ere.

**beotibar** 500 m<sup>2</sup> komertzialak  
Handiena eta espozizio onena elektrogailuetan  
Gudari, 7 • TOLOSA • Tel/faxa: 943 65 46 50

**ELA** Ondo pasa Inauteriak!  
EUSKAL SINDIKATUA

Inauteriak ondo pasa!  
**Laier** TABERNA GOSARIAK ETA MUSIKA ONA  
Arostegieta • TOLOSA • 943 67 51 19



TALAI DANTZA ▶

# Makila eta soinu hotsak

Amezketako herritar batzuk bizirik mantentzen dute Talai dantza; aurten 30 urte bete dira berreskuratu zenetik; Zaldunitan eta Astelehenitan egiten dituzte saioak



Dantzariak goizeko lehenengo saioetan atzo, Txindoki elurtuaren altzoan; talde bat Bedaioako baserrietatik ibili zen atzo goizean. I. GARCIA



Trikitilari bana eraman zuen talde bakoitzak. I. GARCIA



Makilak elkar joaz pasatu zuten goiz guztia dantzan. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Eguraldia lagun —«izan dira urteak elurretan aritu garela», azaldu zuten dantzariak—, urtero Inauterietan egiten den bezala, Talai dantzariak Amezketan, Ugarten eta Bedaion aritu dira eskean Zaldunitan eta Astelenitan.

Herenegun Ugarten eta Amezketako kaleetan aritu ziren. Atzo Bedaioako eta herriko baserrietara eraman zuten makilak eta trikitixaren hotsak. Goizean goiz plazan bildu eta bi taldetan banatu ondoren, batzuk «goitiko», hau da, Bedaio aldetik, eta beste batzuk, «be-

hetik», hots, Amezketako baserrietara abiatu ziren. Hainbatean errepikatu zuten erritual berdina: baserrira gerturatzean, eskusoinuaren musikarekin batera makilen arteko talke-hotsa hasten zen. Iristerakoan, trikitilari alde batean jarri eta dantzariak lerro batean jartzen ziren, bata bestearen aurrean, dantza hasteko prest. Orduan Talai dantzaren doinua ateratzen zen trikitixatik eta dantzariak beren saioa egiten zuten, baserriko biztanleen aurrean. Bukatzerakoan poltsa pasa eta hurrengo baserriara.

Azken dantza Larreta base-

rrian egiten dute. Berreskuratu zenetik, orain 30 urte, han bukatzen dute. Bertakoa zen Bartolo Mujika, Talai dantzaria izandakoa. Berak erakutsi zien dantzari berriei eta bukaeran hamaiketako oparoa ematen zieten. Orain urte gutxi Bartolo Mujika zendu bazen ere, bere alarguna eta semea zain izaten

dituzte dantzariak. Hogeita bi lagun bildu ziren atzo. Goiz guztian zehar baserri baserri aritu ondoren, gauean berriz elkartu ziren sagardotegi batera joateko, ohitura bihurtu den modura. Agian gero Tolosara abiatuko zen lagun koadrila. Makilak eta dantzari jantziak eramango ote zituzten?

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23

**Baliarrain.** Medikua: 88 90 03

**Berastegi-Elduain.** Medikua:

68 33 61

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

**Orendain.** Medikua: 65 55 95

**Orexa.** Medikua: 68 22 28

### Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroizko dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

### Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

### GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

### KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttipa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

### EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Ugarte, M.T., Euskal

Herria 46 (Ibarra), 943 673274.

Larraia, M.I. Elbarren 95

(Leitza). 112.

### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_public@tolosaldeko

hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

**Anoetaidea.** 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitzalde.** 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

